

# Euskal traol-aktibismo feminista: 2021eko Emakumeen Nazioarteko Egunaren elkarrizketa digitalaren azterketa

Julen Orbegozo Terradillos<sup>1</sup>, Enara Zarrabeitia Bilbao<sup>2</sup>, Izaskun Alvarez Meaza<sup>2</sup>

<sup>1</sup>Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakaslea

<sup>2</sup>Bilboko Ingeniaritza Eskolako irakaslea

Ikerketa honek 2021eko martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, Twitterren sortutako elkarrizketa digitala aztertzen du. Helburua da euskal feminismoaren *online* mobilizazioaren deskribapena egitea, euskarazko traolen monitorizazioaren bitartez. martxoaren 4tik 9ra, 4.444 erabiltzailearen 10.569 txioak osatzen dute lagina eta txioak *big data* teknikak aplikatuz prozesatu dira, Pajek, Gephi eta Orange Data Mining softwareak erabiliz. Hala, *ad-hoc* diseinatutako prozesu metodologiko zehatza inplementatzen da. Emaitez agerian utzi dute ikertutako elkarrizketak sare horizontal eta plurala eraikitzen duela, bi ardatz nagusi oinarri hartuta: ezkerreko ideologia eta abertzaletasuna. Halaber, kasu paradigmaticoa da eztabaida publiko digitaletan eragiteko eragileen estrategiek dituzten ondorioak ikusarazteko.

GAKO-HITZAK: Emakumeen Nazioarteko Eguna · Twitter · Sare Soziales Analisia · Feminismoak.

## Basque Feminist hashtivism: Analysis of the digital conversation on international women's day 2021

This research analyzes the digital conversation that emerged on Twitter, on March 8, 2021, International Women's Day. The objective is to describe the online mobilization of Basque feminism by monitoring hashtags in Euskara. A sample made up of 10,569 tweets is analyzed, sent by 4,444 users from March 4 to 9, using techniques for Big Data processing. Pajek, Gephi and Orange Data Mining software are used. Likewise, an ad-hoc methodological process is designed and implemented. The results show that the analyzed conversation builds a horizontal and plural network, and that it is formed based on two main axes: left-wing ideology and nationalism. Likewise, it is a paradigmatic case to observe the consequences of the different strategies that those agents who intend to influence the digital public controversy can take.

KEY WORDS: International Women's Day · Twitter · Social Network Analysis · Feminisms.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.121.2022.6>

*Jasotze-data:* 2021-06-07

*Onartze-data:* 2021-09-13

## 1. Sarrera: ikerketaren testuingurua eta zioak

Interneten sorrera eta garapena da Industria Iraultzaren osteko aro garaikideak duen ezaugarri nagusia. Azken hamarkadetan Akademiak hamaika izendapen erabili ditu gaur egungo gizarteari erreferentzia egiteko. Mercier *et al.*-ek (1990), Terceirok (1996) eta Negropontek (1995), esaterako, «gizarte digital»ari aipamen egin zioten euren ikerketa eta hausnarketetan. Tofflerrek (1995) «hirugarren olatuko gizarte»ari erreferentzia egin zion eta Bellek (1976), besteak beste, gure jendartea «informazioaren gizarte» dela esan zuen.

Badira beste autore batzuk nomenklatura horri ekarpena egin diotenak, hala nola ezaguna da McLuhanen (1994) «herrixka global»aren ideia edo Echeverriak (1999) aipatzen duen «telepolis» edo «urrutiko hiria» delakoa, gizakiok dugun antolaketa berriari buruzko gogoeta. Levy (2001) eta Picistelli (2002) ikertzaileek «kultura birtual» edo «ziberkultura»ri buruzko ekarpena utzi zuten, eta Tapscottek (1997) zioenaren arabera, aurrerapen teknologikoen ahalbidetu dute gaur egungo «gizarte inteligente interkonektatua».

Dena delakoarekin, Informazioaren Aroa edo Iraultza Digitala terminoak ere erabili izan diren arren, «Aro Digital» (Jódar-Marín, 2010; Téllez-Carvajal, 2017) hitz-lotura da gehien baliatu dena gaur egungo testuinguru teknologiko eta sozialari erreferentzia egiteko. Hala, garaia bereizgarri nagusia, aipatu moduan, Internet eta gailu teknologiko pertsonalek sortu duten ziberespazio edo ziberesfera berria izan da.

Azken hamarkadetan zibeespazio hori sakonki ikertu duen autore garrantzitsuenetako bat Manuel Castells izan da. Irakasle eta soziologoak gaur egungo gizartearen antolaketa azaltzeko eta prozesu sozial zein politikoak ikertzeko arrakasta handia izan duten kontzeptuak sortu zituen: «Masen Autokomunikazioa» eta «Sare Gizartea», alegia (Castells, 2006). Hala, ikerketa zientifikoaren esparruan esfera publikoaren eta iritzi publikoaren osaketaren harira sare forma duen ikuspegi epistemologikoak indarra hartu du azken urteotan, sare sozial digitalek prozesu sozial eta politikoetan duten garrantzia nabarmendu delarik.

Artikulu honetan azaltzen den ikerketa-kasua, hain justu, gizarte-komunikazioaren paradigma berri horretan kokatzen da eta badu gorago aipatu diren kontzeptuekin zerikusirik.

Interes akademikoari erreparatuta, hiru arrazoi aipa ditzakegu ikerketa honen beharra argudiatzeko: lehenik eta behin, sarean (sare sozial konkretu batean) eta saretuta (Morales i Gras, 2017) jarduten den emantzipaziorako indar eta potentzial handiena duen mugimendu sozial garaikidearekin (Ramoneda, 2018) zerikusia duen fenomeno zehatza aztertzen du, feminismoa, alegia; bigarrenik, aipatu testuinguru teknologiko, sozial eta akademiko berriaren kontsolidazio-garaian egiten da eta, gainera, COVID-19ak oinarritzko aktibismo formei aldaketak eragin dizkiela ikusita (Gravante & Poma, 2020), aproposa izan daiteke pandemiak arlo ezberdinetan izango dituen ondorioak neurtzeko; eta hirugarrenik, ikerketa-kasu honetan lehen aldiz aplikatuko da *big data*, algoritmoak eta aztarna digitala konbinatzen dituen

metodo zientifikoa (Orbegozo-Terradillos, Morales-I-Gras, *et al.*, 2020) euskal feminismoen jarduna aztertzeko.

Hartara, ikerketa honek 2021eko martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, sortutako elkarrizketa digitala aztertzen du Twitter mikroblogging-zerbitzariaren bidez. Helburua da euskal feminismoak efemeride horretan izandako mobilizazioaren deskribapena egitea, euskarazko *hashtag* edo traolen (Zeifer, 2020) monitorizazioaren bitartez. Ikerketaren norabidea finkatzeko galdera ugari jarri dira mahai gainean, hala nola zer hizkuntzatan txiokatu dute euskarazko traolak erabili dituzten erabiltzaile, erakunde eta elkarteek? Zeintzuk traol erabili dira aldarrikapenerako? Zeintzuk komunitate sortzen dira elkarrizketa digitalean eta zer ezaugarriren arabera saretzen dituzte algoritmoek? Zeintzuk izan dira eduki eta erabiltzaile arrakastatsuenak? Abiapuntutzat honako hipotesia hartzen da: elkarrizketa digitalaren dinamizazioa, hein handi batean, euskal erakunde publikoen, eragile edo elkarte feministen eta emakumezko aktibista feministen esku egongo da.

## 2. Traol-aktibismo feminista munduan eta Euskal Herrian

Aktibismo feminista digitalari buruzko bibliografia akademikoa franko ugaritu da azken urteotan, ziberfeminismoak Internet eta sare sozialen gerizpean izan duen hazkundera esker (Larrondo-Ureta *et al.*, 2021). Hain justu, *hashtivismo* edo traol-aktibismo feminista bilakatu da ikertzaile ugari laugarren olatu feminista (M.-P. García, 2018; Varela, 2019) deitu duten momentu historikoaren bereizgarri nagusi. Dixon (2014) autoreak azaldu moduan, «feminismo berriak, hein batean, traolen erabilerarekin jarduten dira». Traol-aktibismo mota hori historikoki emakumeek pairatu izan duten oztopo ezberdinak gainditzeko erabili da, identitate berdinak eta antzeko emozioak dituzten emakumeen komunitateak sortzeko balio duen sistema delako.

Hala, mugimendu feminista garaikideek badute halako ikusgaitasun handiago bat sare sozial digitalei esker. Egia da testuinguru digitalak arrisku zein mehatxu potentzialak ekarri dituela mugimendu sozial guztientzat, baina agerikoa da feminismoek asmatu dutela Internetek eskaini dien espazioa baliatzen, ekintza ziberaktibistak garatzeko eta errelato, diskurtso eta aldarrikapenak espazio publiko zein iritzi publikoan txertatzeko (Reverte & Medina-Vicent, 2020).

Hain justu, Twitter bezalako sare sozialek antzeko kezka, antzeko emozio eta antzeko aldarrikapenak dituzten emakumeak sartzeko balio izan dute. Hala, Araújo (2015) gogora ekartzen duen moduan, egokia da Harawayk (1995) aipatu zuen «esperientzia partekatu»-en kontzeptua aipatzea: «Esperientzia produktu bat da eta emakumeen mugimendurako bitarteko erabakigarri bat», zioen. Bada, emakumeak eta feministak harremanetan jartzen gara eta ekimena hartzen dugu, hain zuzen, esperientzia partekatuen joko-zelai horretan, zeina politikoki bortitza den.

Ildo horretatik, herrialde, nazio edo hiztun-komunitate bakoitzak bere traolen bidezko aldarrikapen eta borroka feministak izan ditu azken urteotan. Horieta batzuk Tarullo eta Garciak (2020) biltzen dituzte, iturri anitz aipatuta: #YoSíTeCreo (Larrondo *et al.*, 2019) #Bringourgirlsback (Ofori-Parku & Moscato, 2018),

#yoviajosola (Piñeiro-Otero & Martínez-Rolán, 2016) #SupportIslandWomen (Myles, 2019), #Niunamenos (Chenou & Cepeda-Másmela, 2019), #Abortolegal (Laudano, 2018) eta #RespetoAlDolorDeMadre (Acosta & Nevache, 2020).

Hala ere, denetan sona handiena izan duen ekintza aktibista digitala *#MeToo* delakoaren inguruan sortutakoa izan da. *#MeToo* fenomenoak Sousa-Santosek (2002) aipatu zuen «lokalismo globalizatu» gisa uler daiteke, alegia, tokiko gertaera batek, protagonistek duten hedapenerako boterea baliatuta, mundu-mailako eragina izaten duen globalizazio mota gertatzen denekoa. Aipatu kasuak ahalbidentu zuen mundu zabaleko emakumeek urte askoz esparru pribatuan gordeta izan duten arazo pertsonal eta kolektibo bat esfera publikoaren lehen lerrora ekartzea (Muñoz-Saavedra, 2019).

Aipatu legez, aktibismo digital feministak traolaren erabileraren bitartez egindako aldarrikapen-ekintzen azterketak bibliografia zabala sortu du esparru akademikoan. Bibliografia zabal horretako zati esanguratsu batek Euskal Herrian izandako gertaera bat jorratzen du: 2016an Iruñeko Sanferminetan gertatutako bortxaketa eta sexu-eraso kolektiboa. La Manada Kasua moduan ezagun egin zen, bereziki Espainiako Estatuan hedatu zen fenomenoak, eta hainbat ikertzailek Twitterren traol ezberdinen bitartez (*#EstaEsNuestraManada*, *#EsUnaGuerra*, *#JusticiaPatriarcal*, *#LaManada*, *#NoEsAbusoEsViolacion*, *#NoEsNo*, *#YoSíTeCreo* eta abar.) sortutako elkarrizketa digitala aztertu zuten (Aurrekoetxea-Casaus, 2020; Idoiaga Mondragon *et al.*, 2019; Navarro & Coromina, 2020; Robles *et al.*, 2019).

Hala ere, kontsultatutako datu-baseek agerian utzi dute errealitate bat: esparru akademikoan bada hutsune nabarmen bat traol-aktibismo feministaren ikerketari dagokionez, Euskal Herrian gertatutako fenomenoak (aipatu kasua alboan utzita) eta euskaraz egindako aktibismoari dagokienez. Ez da ikerketarik existitzen ez Twitterren eta ez beste sare sozialen baten espresuki euskaraz egindako aktibismo digital feministari buruz. Gauzak horrela, ikerketa-kasu honek —eta etorkizunean antzeko metodologia erabilia egin daitekeen orok— hutsune hori betetzeko asmoa du: Datuen Zientziak (García-Herrero *et al.*, 2018) eta sare sozialek eskaintzen duten aztarna digitala baliatuta mugimendu sozialek iritzi publikoan duten eragina aztertzea, betiere, euskal aktibismo digitalaren ikuspegitik.

Hartara, ikerketa honek aztergai ditu emakume zein gizonek euren esperientziak edo posizionamenduak azaltzeko Twitterren utzitako mezuak. Azterketak baliatzen duen hipotesietako bat da emakumeen ahotsek indar handiagoa izango dutela elkarrizketa digitalean, eta hein batean, premisa hori oinarri hartuta, Euskal Herriko esparru zientifiko feministari ekarpena egitea ere bada helburuetako bat. Hain justu, Castañedak (2008) zioen moduan, «ikerketa feminista egitearen elementu bereizgarri bihurtzen da, hain justu, emakumeen esperientzia berriro hartzea baliabide enpiriko eta teoriko gisa».

### 3. Pandemiaren bitarteko eta osteko (traol-)aktibismoa

2019ko abenduan identifikatu zen SARS-CoV-2 birusa eta pandemia globala zein belaunaldiartekoa eragin du, munduko bazter guztietan denbora berean

pairatzen ari garena eta aparteko oihartzuna izaten ari dena. 2020ko martxoaren 11n Osasunaren Mundu Erakundeak COVID-19a pandemia gisa izendatu zuenetik gure gizarteko arlo guztietan ondorio sakonak eragin ditu (Casero-Ripollés, 2020).

Hala, esparru zientifikoak jakintzagai guztietatik arreta berezia eskaini dion fenomeno historikoa izaten ari da eta aktibista zein intelektual ugari argitaratu dituzte euren ikuspuntuak gaiaren inguruan. Hausnarketa horiek askotarikoak dira, Zizekek (2020) egiten duen kapitalismoaren amaieraren iragarpenetik, Agambenek (2020) aipatzen duen hezkuntza unibertsitarioaren gainbeherara, edo Han (2020) zein Yañez-Gonzalezek (2020) aipatzen duten kontrol sozialerako teknologia berrien ugaltze masiboari buruzko gogoetak, besteak beste, jar ditzakegu adibide gisa. Atal honetan aktibismo formetan pandemiak izan duen eraginari erreparatuko diogu.

Portillo eta Beltranek (2021) adierazten dutenez, pandemiak etorkizuneko mobilizazioen formetan eragin handia izango du, inflexio-puntu antzekoa izango baita, feminismo garaikideentzat ere. Horrez gain, autoreen iritziz, areagotu egingo da sare sozialen erabilera eta horrek aktibismoa digitalagoa izatea ekarriko du. Arbuetek (2021) azaltzen duen moduan, kutsatzeak sortzen duen beldurrarengatik edo, dena bihurtu da digitalago. Hein batean, «birtualizatu» egin da lana, festa, debatea eta baita protesta ere. Hala, protesta edo aldarrikapenen «alde fisikoa» neurri handiago edo txikiagoan baztertzek, dudarik gabe, ondorioak izango ditu etorkizuneko aktibismoan.

Aktibismo digital edo traol-aktibismoari dagokionez, Bringel eta Pleyersek (2020) ohartarazten duten moduan, pandemiak geratu egin du, modu nabarmen batean, aurreko urteetan hasi eta indartsu zegoen mobilizazio sozial historikoen olatua. Hala, mugimendu sozialen eguneroko protestak, hein batean, sortasun-aro batean murgildu dira eta esparru digitalera «migrazio» antzeko bat izan dute.

Della-Portak (2020) azaltzen duen moduan, osasun-larrialdiaren ondorioz, bizi garen testuingurua ez da egokia kalean edo plaza publikoan egiten diren mobilizazioek indarra hartzeko eta horrek ekarri du protestarako modu alternatiboak sustatzea: balkoietak aldarrikapenak, auto-karabanak eta abar. Litekeena da, ordea, mugimendu eta aldarrikapen sozialek sarean (Internet eta baliabide digitalak erabilia) eta saretuta (antzeko interes, kezka edo beharrianak dituzten norbanakoen arteko konexioak sortuz) jarraituko dutela gobernuen eta agintarien aurrean presioa eragiten aldaketak sortzeko. Hala gertatu zitzaion feminismoari: 2020ko martxoaren 8ko greba eta mobilizazioen ostean aktibismo eta militantzia formak eraldatu zituen eta elkarrizketarako eta topaketarako espazio berriak sortu zituen sare sozial, aplikazio eta plataforma birtualen bitartez (Partenio & Atienza, 2021).

Hain justu, gizartearen digitalizazio-prozesuan urrats nabarmenak egin dira azken hilabeteotan eta sare sozialen erabilera areagotu egin da pandemia-garaian (Juste, 2021). Horrek baditu alde negatiboa eta alde positiboa, Bringel eta Pleyersek (2020) ohartarazten duten moduan: alde batetik, indibidualizazio-prozesua sakondu da, albiste faltsuak ugaltu dira eta kontrol sozialerako baliabide gehiago sortu dira. Aldeko puntuen artean, ordea, pertsonen arteko interakzio gehiago egotea ekarri du eta kontrainformaziorako espazio berriak sortu dira hausnarketa eta analisi

alternatiborako. Hala, Zajak (2020) ongi azaltzen duen moduan, urruntze sozialaren arauak azalean edo isilean indarrean jarraitzen duen bitartean, aktibistek bide berritzaile eta kreatiboak bilatu beharko dituzte esparru digitalak ematen dituen aukerak aprobetxatuz.

Pandemiak, beraz, azkartu egin du aurretik zetorren «bizitzaren digitalizazioa» delakoa, berau bizitzaren esfera guztietara hedatzen delarik (Llavaneras-Blanco & Graciela-Cuervo, 2021). Testuinguru horretan, ikerketa-lan honek Gutierrez-Rubik (2021) aldarrikatzen duen «gizarte geldigorra» delakoa ulertzeko demoskopio berri baten beharraren aldarrikapenari so egiten dio. Interakzio birtualek uzten duten aztarna digitala interpretatzeko bide berriak asmatu behar dira, hobeto ulertzeko fenomeno politiko, sozial edo ekonomikoak.

Hala, Interneten jarduten sortzen den *big data* edo datu masiboak jendarte baten gertatzen diren erlazio edo harremanak kartografiatzeko baliu daitezke, hala nola arazo, protesta edo gizartearen emozioak detektatzeko. Ikerketa-kasu honek aztarna digital hori baliatzen du eta espresuki kasu honetara egokitzen den prozesu metodologikoa diseinatu da ikerketak sortzen dituen galderei erantzuteko.

2021eko martxoaren 8an Euskal Herrian eta munduko herrialde askotan mugikortasuna eta biltzeko eskubidea mugatuta zegoen (Martín, 2021) eta erakunde publikoetako bozeramaile ugari kaleko manifestaziotara ez joateko eskaera plazaratu zuten (de-Barro, 2021). Hala, kolektibo feminista askok etxean ez geratzeko deia ozen zabaldu arren, emakumeen eskubideen aldeko aldarrikapenak babesten dituzten kolektibo ugari «aldarrikapen telematikoak» ere sustatu zituzten (I. García & Reynoso, 2021; Martín, 2021; Ullate, 2021).

2021eko Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna aurrekaririk ez duen testuinguru global batean eta baldintza sozial berezietan ospatu zen COVID-19aren pandemiaren eraginez. Komunitate zientifikoarentzat ikerlan honetan aztertzen den fenomeno bereziki erakargarria da hiru elementu uztartzen dituelako: feminismoak, aztarna digitala eta pandemia-garaia. Hala, gizartea transformatzeko indar eta ahalmen handiena duen mugimendu sozialetako batean (Ramoneda, 2018) jartzen da fokua, gizakion portaera aztertze potentzial handiena daukan ikerketarako objektu bat baliatzen da (Gutiérrez-Puebla, 2018) eta aurrekaririk ez duen testuinguru sozial, politiko eta ekonomiko batean egiten da (Calviño-Santamaría, 2020).

#### 4. Prozesu metodologikoa

Hurrengo lerroetan deskribatzen den metodologia *ad-hoc* sortua da ikerketa honetarako eta antzeko kasu eta elkarrizketa digitaletan erreplikatzeko modukoa izan daiteke.

Ikerketa honek denbora-tarte bat ezarri du fenomeno aztertze: 2021eko martxoaren 4tik martxoaren 9ra. Jakina da egun konkretu batean ospatzen den ekimen, jazoera edo efemeride zehatz batek baduela aurretiko eta osteko denbora-tarte bat, zeinean testuingurua sozialki prestatu egiten den eta zeinean gertakizunaren

ondorioek ere zeresana ematen duten. Horregatik, sei eguneko monitorizazioa egin da Twitter sare sozialean, aurretik eta ostean gertatzen dena ere jasota gera dadin.

Datuen erauzketari dagokionez, euskal erabiltzaileen joerak Twitterreko sarean identifikatzeko umap.eus-ek sortutako zerranda erabili da, webgune horrek euskal txiolariak identifikatzen baititu aipatu sare sozialean (Fernandez-de-Landa, 2018) baita euskal txiolarien jardunean oinarritzen diren joerak ere (umap.eus, 2021). Umap-ek emandako datuen arabera, euskal txiolariak lau traol erabili zituzten bereziki ikerketa hau zedarrizten den denbora-tartean (martxoaren 4tik martxoaren 9ra): #Martxoak8, #EmakumeenNazioartekoEguna, #GukEgingoDugu eta #GoraBorrokaFeminista.

Datuak atzera begira erauzten dira (egun batzuk beranduago abiatzen da erauzketa) eta fenomenoak gertatu zen bitartean behatu ostean. Hala, ikertzaile taldeak erabaki garrantzitsu bat hartzen du: beste hizkuntza batzuetan ere erabili ziren traolak laginetik ezabatzea eta espresuki euskal esparruarentzat eta euskaraz sortutakoekin geratzea. Erabaki horren baitan kanpoan geratzen dira nazioartean eta hizkuntza ezberdinetan franko erabili ziren traolak, hala nola #M8, #8M, #M82021 eta #8M2021.

Txioen deskarga eta prozesamendurako erabili diren softwareak 1. taulan laburbiltzen dira.

### 1. taula. Ikerketan erabilitako software desberdinen ezaugarri eta erabilera.

Softwarea	Ezaugarriak eta erabilera
<b>T-Hoarder</b> (Congosto <i>et al.</i> , 2017)	Software libre. Python lengoia oinarritua. Twitter-en API estandararekin konektatuz txioak atzera begira erauzi dira erreminta honi esker.
<b>OpenRefine</b> (OpenRefine, 2021)	Software libre. Java teknologian oinarritua. Datuen garbiketa eta antolaketarako erabili da tresna hau.
<b>Pajek</b> (Mrvar & Batagelj, 2021)	Software libre. Sare handien analisi eta irudikapenerako erabiltzen den erreminta honekin datuak antolatu eta hainbat metrika kalkulatu dira (Orbegozo-Terradillos, Larrondo-Ureta <i>et al.</i> , 2020). Komunitate nagusien identifikaziorako erabili den algoritmoa Louvain-Multilevel algoritmoa (Blondel <i>et al.</i> , 2008) izan da.
<b>Gephi</b> (Bastian <i>et al.</i> , 2009)	Software libre. Java teknologian oinarritua. Sareen analisi eta irudikapenerako erabiltzen den tresna. Ikerketa honetan, irudikapenerako erabili da, eta horretarako erabili den algoritmoa Force-Atlas 2 algoritmoa (Jacomy <i>et al.</i> , 2014) izan da.
<b>Power Query</b> (Microsoft, 2021)	Datuen prestaketa eta eraldaketarako tresna Excel-en. Komunitateen analisi zehatzagorako erabili da.

Iturria: norberak egina.

Goiago aipatutako baliabide informatikoekin ikerketa honek ikuspegi kuantitatiboa bermatua du. Hala, datuak jaso ostean, fenomenoaren azterketarako algoritmo



zehatzak baliatzen dira datu horiek kuantifikatzeko eta ordenatzeko. Ikerketa honek dituen galderi erantzuteko, ordea, ikuspegi kualitatiboa ere aplikatu beharra dago, erazutako informazioaren testuak, diskurtsoak, harremanak eta abar testuinguru zehatzean kokatu ostean, errealitate sozialeko fenomeno jakina deskribatzea baita helburu nagusia (Álvarez-Gayou *et al.*, 2014). Ikerketa-kasuak badu, beraz, datu hotzetatik harago informazioaren interpretaziorako tarte nabarmen bat. Horixe da, hain justu, *big data* delakoak daukan erronka nagusietako bat: datu masiboen erazketa eta biltegitratzeko traba teknikoak teknologikoki gainditu ostean, etorkizuneko erronka da informazioari balio erantsia ateratzea interpretazio egokiaren bitartez, informazio hori sozialki baliagarria izan dadin (Tabares & Hernández, 2014).


Hala, kasu-ikerketa hau «konputazio sozial»aren (Tabares & Hernández, 2014) arloan kokatzen da, fenomeno sozial zehatz bat aztertu eta ulertzeko —euskal feminismoen errealitatea— ezagutza zientifikoa sortzea eta komunitate zientifikoaren eskura jartzea baitu helburu.

## 5. Emaitzak eta eztabaida

Aurreko atalean aipatutako parametroen barnean, 2021eko martxoaren 4tik 9ra, 4.444 erabiltzailek sortutako 10.569 txiok osatzen dute ikerketa honen lagina. Lagin hori baliatu du ikerketa honek hurrengo ataletan jasotzen diren emaitzak idazteko.

### 5.1. Ikuspegi orokorra: kronologia eta hizkuntza


Aurreko ahapaldietan aipatu moduan, txiolariek ez dute jarduera egun bakarrera mugatzen (aurreko zein osteko egunetan ere badago aktibitatearik), baina txio guztien % 80,5 martxoaren 8an bertan jaso dira, eta aurreko egunetan ez da hazkunde proportzionalik gertatzen. Horrek aditzera ematen du esfortzu aktibista nagusia egunean bertan gertatzen dela eta efemeridea hurbildu ahala ez dela «berotze-ariketa» berezirik egiten (ikus 1. irudia).



**1. irudia. Txioen bilakaera matxoak 4-9 denbora-tartean. Iturria: norberak egina.**



Txiolariak erabilitako hizkuntzari arreta berezia eskaintzen dio ikerketa honek. Hala, euskaraz eta euskal esparru digital-kulturalean sortutako traolen bitartez jasotako datuek agerian uzten dute, euskaraz harago, beste hizkuntza batzuek presentzia nabarmena dutela martxoaren 8ko elkarrizketa digitalean. Horrek zera esan nahi du: euskarazko traolak erabili arren, erabiltzaileen % 20 inguruk gaztelaniazko edukia sartzen dutela euren txioetan, eta % 10 inguruk beste hizkuntza batean idazten dutela (ikus 2. irudia). Datu horrek feminismoek garatzen duten nazio, klase, arraza eta abarrez gairik aliantzak bilatzearen estrategiari erantzun diezaiokie; izan ere, laginean hainbat aldiz errepikatzen den fenomeno da honakoa: gaztelaniaz edo beste hizkuntza batzuetan idatzitako txioetan euskarazko traolak sartzea, euskal feminismoei keinu antzekoa egite aldera. Hala ere, horrek ikerketa sakonagoa beharko luke.



**2. irudia. Txioetan erabilitako hizkuntza.**  
Iturria: norberak egina.

## 5.2. Traolen erabilera

10.569 txioetan, guztira, 1.108 traol ezberdin erabili dira. Kontuan izanda gehien erabili den traola 7.033 aldiz erabili dela (#Martxoak8), esan daiteke aztertutako elkarrizketa digitala «traolaniztuna» izan dela. Erabiltzaile gehienek traol bat baino gehiago idatzi dituzte txioetan, sarri, honako konbinazio hau erabilia: traol orokor bat (#Martxoak8 edo #EmakumeenNazioartekoEguna), arlokako aldarrikapenen bat egiteko erabilitako traol batekin konbinatuta (#GukEgingoDugu edo #SistemaArrakalatu, esaterako). Traolaren erabileran oinarritutako mezuak ere ugariak izan dira (mezu labur bati traol multzo bat gehituta) (ikus 3. irudia).

Alde batetik, beraz, aktibismo digitala ez da traol bakar eta zehatz baten erabilerara mugatu; eta bestetik, ekintza aktibista traolen erabilera askotarikoan oinarritu dela esan genezake. Hala, erabiltzaile gehienek traolen konbinazioetara jo dute aldarrikapenak egiteko.



5:42 p. m. · 8 mar. 2018 · Twitter for Android

2 Me gusta

**3. irudia. Hizkuntza ezberdinetan egindako traolen konbinazioaren adibidea. Iturria: [twitter.com/emesutan](https://twitter.com/emesutan).**

2. taulan euskaraz (eta ez beste hizkuntza batzuetan) gehien erabili diren 10 traolen inguruko informazioa jasotzen da. Hala ere, hortik harago, aipagarria da mila traol baino gehiago jasotzen dituen zerrenda luzean orotariko traolak jasotzen direla: aldarrikapen zehatzak (i.e. #transexualitatea), herri edo eskualdeen izenak (i.e. #Bilbo, #Irun, #Gasteiz...), zeharkako aldarrikapenak (i.e. #KlaseElkartasuna), aldarrikapen sektorialak (i.e. #TubacexBorrokan) eta abar.

«Top 10» zerrendari erreparatuta zenbait xehetasun nabarmendu daitezke. Alde batetik, soilik alderdi batek sortu du efemeride honi begira berariaz traol bat: Euzko Alderdi Jeltzalearen #GukEgingoDugu (ikus 4. irudia). Beraz, euskal esparru politikoan parte hartzen duten gainerako alderdiek erabaki estrategiko bat hartzen dute aktibismo digitalerako: traol alderdikoirik ez sortzea eta elkarrizketa digitalean talde edo «tribu» lege ez parte hartzea.

Bestetik, Euskal Herriko feminismoek edo talde feministek urte horretarako espresuki sortutako traolik ez da nagusitasunez ageri. Horren ordez, elkarrizketa digitala «dinamizatzeko» espazio publiko digitalean elkarri eragiten dioten beste erakunde batzuk ageri dira, hala nola sindikatuak eta berdintasunean urratsak emateko ardura duen Emakunde erakunde publikoa.

## 2. taula. Euskarazko traol erabilieneen «Top 10a».

Postua orotara	Traola	Kopurua	Informazio gehiago
1	#Martxoak8	7.033	Berriazko traol orokorra.
3	#EmakumeenNazioartekoEguna	2.729	Berriazko traol orokorra.
5	#GukEgingoDugu	2.140	Berriazko traola. Euzko Alderdi Jeltzalearen (EAJ) kontu ofizialek eta hautetsiek bereziki erabilia.
7	#GoraBorrokaFeminista	1.130	Euskal feminismoaren traol orokorra eta iraunkorra.
11	#FuntsezkoakBeti	271	Beste kanpaina batzuei begira LAB sindikatuak bultzatutako traola.
13	#SistemaArrakalatu	259	Mugimendu feministek bultzatutako berriazko traola. Alderdi politiko, sindikatu, gazte-erakunde, elkarte feminista eta norbanakoek erabilia.
16	#BaduguAukera	164	LAB sindikatuak bultzatutako traol orokor eta iraunkorra.
21	#Berdintasuna	114	Traol orokorra.
22	#ZaintzakAgerian	97	Emakundek, berdintasunaren aldeko erakunde publikoak, bultzatutako berriazko traola.
23	#BizitzarenLehenLeroan	93	ELA sindikatuak bultzatutako berriazko traola.

**Iturria: norberak egina.**



**4. irudia. Euzko Alderdi Jeltzalearen #GukEgingoDugu traolaren baitako txio bilduma eredugarria. Iturria: [twitter.com/eajpnv](https://twitter.com/eajpnv), [twitter.com/arantxa\\_tapia](https://twitter.com/arantxa_tapia), [twitter.com/eajpnvsenatus](https://twitter.com/eajpnvsenatus)**

Aurreko atalean azaldu den legez, ikerketa honen lagina «garbiketa» prozesu bat egin ostean sortu da. Hala, zalantzak sor zitzaketen txioak ekiditeko (*big dataren* argotean «zarata» izenez ezagutzen dena), euskaraz sortutako berariazko traolak soilik kontuan izan dira lagina egituratzeko. Hartara, deigarria da datuek ikusarazten duten beste fenomeno bat: euskarazko traolekin batera, konbinazio moduko batean, gaztelaniaz idatzitako traol ugari ageri dira, hala nola #DialInternacionalDeLaMujer, #EsencialesSiempre, #VivasLibresUnidas eta abar.

5. irudian ikus daitezke aztertutako kasuan erabilitako traol guztiak eta elkarrizketan duten pisu erlatiboa (txioen erauzketarako preseski «erabilitakoak» eta «ez erabilitakoak» ez dira azaltzen: #Martxoak8, #EmakumeenNazioartekoEguna, #GukEgingoDugu, #GoraBorrokaFeminista, #M8, #8M, #M82021 eta #8M2021).



**5. irudia. Elkarrizketa digitalean erabilitako traolak.**  
Iturria: norberak egina.

**5.3. Erabiltzaileen artean sortutako harremanak**

Behin txioak deskargatuta, aipamenak erauzi ondoren (zer erabiltzailek zer erabiltzaile aipatzen duen), sortutako elkarrizketa digitalaren metrika nagusiak ondoren azaltzen direnak dira (ikus 3. taula).

**3. taula. Elkarrizketa digitalaren metrikak.**

Dentsitatea	0.00041243
Sarrera-maila zentralizazioa	0.06373332
Irteera-maila zentralizazioa	0.00994084
Bitarteko zentralizazioa	0.01365964
Kluster kopurua	263
Modularitatea	0.826366

Iturria: norberak egina.

Lortutako dentsitatearen arabera, elkarrizketa digitalean egin zitezkeen konexio posible guztien artean % 0,041243 bakarrik egin dira. Beraz, interpelazio estrategiko ugari geratu dira gauzatu gabe. Beste era batera esanda, elkarrizketa digitalak sortzen duen sarean parte hartzen duten erabiltzaileek elkarren arteko konexio potentzial ugari utzi dituzte egikaritu gabe.

Sarrera-maila zentralizazioa ere oso txikia da (% 6,37), beraz, ez dago erabiltzailerik edo erabiltzaile talde konkreturik elkarrizketa digitaleko aipuen harrera monopolizatzeke joera duenik. Hau da, fenomenoaren azterketatik sortutako sareak ez du, ikuspuntu honetatik behinik behin, lidergo argirik. Are gehiago, irteera-maila zentralizazioa ere oso txikia da (% 0,99). Ondorioz, ez dago, ezta ere, erabiltzaile talde konkreturik aipuen irteeran nagusitasuna adierazten duenik. Beste era batera esanda, solasaldi plural eta korala dela esan daiteke; alegia, alde batetik, erabiltzaile askok ez du erabiltzaile gutxi aipatzen, eta bestetik, elkarrizketaren sortzea eta antolatzea ez dago taldeburu bakan batzuen esku. Hala, bitarteko zentralizazioaren datuak (% 1,37) adierazten duen moduan, eta mikrobloggerako erabiltzen den Twitter aplikazioan sortutako elkarrizketen ikerketa-kasu askotan gertatzen den ez bezala, aztertutako fenomenoan ikus daiteke sarea modu oso horizontalean dagoela antolatuta.

Erabiltzaileen artean sortutako harremanak modu grafikoan ikusteko grafoak erabiltzen dira tankera honetako ikerketetan. Grafoetan, harremanak aztertzeko algoritmoen bitartez, elkarrizketa digitaletan sortutako «familia» ezberdinak irudikatzen dira. «Familia» edo talde horiei kluster edo komunitate deitzen diegu, eta kolorearen, tamainaren eta banaketa geografikoaren bitartez elkarrizketa digitalaren zenbait gako interpreta ditzakegu.

Hala, aztertutako fenomenoan, guztira 268 kluster identifikatu dira 0.83ko modularitatearekin. Komunitate horietatik 9k bakarrik pilotzen dute sareko aktoreen % 3 baino gehiago. Hartara, langa horretatik behera kokatzen diren komunitateak hutsalak edo baliogabeak direla esan genezake. Aintzat hartzen diren 9 komunitate horiek (ikus 6. irudia) sare osoko aktoreen % 44,48 batzen dute. Beraz, datu honek arestian esandakoa berresten du: elkarrizketa oso zatikatuta dago eta ez da lidergo absoluturik antzematen.


6. irudian irudikatzen da, beraz, ikerketa-kasu honetako grafoa. Haren morfologiari begiratuta jarraian aipatzen diren bi aipamen nagusi egin daitezke (aipatu grafoaren interpretazioan lagungarri izateko 5. taula sortu da).

Lehena, elkarrizketa digitaleko zenbait kluster nahiko isolatuta ageri direla: irudiaren bazterretan agertzen dira, aktore eta talde gehien pilotzen den nukleotik (elkarrizketa digitalaren erdigunetik) nahiko urrunduta. Termino grafikoetan kokapen hori izateak zera esan nahi du: kluster horretan pilatu diren eduki eta erabiltzaileek elkarrizketa digitaleko beste aktoreekin kontaktuan jartzeko urrats gehiago eman beharko dituztela. Hau da, grafoko bazterretan kokatutako taldeek interakzio askotarikoagoak izateko potentzial murriztagoa daukate.

Komunitateak identifikatzeko erabilitako koloreek adierazten duten legez, hurrengoak dira zokoratuen agertzen diren taldeak:

- Komunitate bat isolamendu-maila handi batekin: 26. komunitatea (Euzko Alderdi Jeltzalea).
- Hiru komunitate isolamendu ertain batekin: 9., 7. eta 15. komunitateak (Gazte Mugimendua, Kazetariak eta EITB, hurrenez hurren).

Bigarren aipamena grafoaren erdiguneari dagokio. Egia da goiko ahapaldietan aipatu ez diren komunitate guztiak elkarrizketa digitalaren zentroan edo zentrorantz kokatuta daudela, baina batek bereziki hartzen du kokaleku pribilegiatu bat: 24. komunitateak (Ezker Independentista). Hala, kluster horretako erabiltzaileek eskurago dute gainerako komunitateetako kideekin interakzio potentziala izatea. Beraz, elkarrizketa digitalean, modu sinbolikoan esanda bada ere, «jauzi» gutxi eginda edo «zubi» gutxi gurutzatuta erabiltzaile askorekin interakzio potentziala izan dezakete 24. komunitatean dauden erabiltzaileek.



**6. irudia. Elkarrizketa digitalaren grafoa.**  
Iturria: norberak egina.

Bukatzeko, ikerketa-kasu honetako aktore talde edo parte-hartzaile nagusien tipologia zein den ikusteko 5. taulan jasotako datuei erreparatuko diegu. Helburu horretarako komunitateko bakoitzeko liderrak zerrendatu dira eta aktore nagusien deskripzio laburra egin da.

Hala, elkarrizketa digitalaren gidaritzan, haien izaera edo tipologiari begiratuta, 7 kolektibo nagusi daude:

- Alderdi politiko, gazte-erakunde eta sindikatuak (9 guztira: @gksozialista, @uibnazionala, @mertxeaizpurua, @feminismoak, @eajpnb, @euzkogaztedi, @lhekibarretxe, @labsindikatua eta @labmetrobilbao).
- Komunikabideak (8 guztira: @ahotsainfo, @ekinklik, @euskalirratia, @naiz.info, @arabakoalea, @hamaikatb, @gaztea eta @eitbalbistek).
- Ekintzaileak (3 guztira: @erreharria1, @igormeltxor eta @enekogara).
- Elkarrekin (2 guztira: @naizen\_elkarrekin eta @sare\_herritarra).
- Kazetariak (2 guztira: @aneirazabal eta @xabiereuskitze).
- Talde feministak (2 guztira: @irunerrikomf eta @aiaraldekomf).
- Artistak (bakarra: @izaroandres).

Aurreko sailkapena eta 5. taulan jasotzen den «Interpretaziorako hitz gakoak» atala kontuan izanda, zenbait ideia gako azpimarratu daitezke emaitzei eskainitako tartea bukatutzat emateko:

- Esfera politikoko aktoreak eta komunikabideak dira elkarrizketa digitalean parte-hartze handiena lortzen dutenak.
- Herrialde biko aktoreekin soilik sortzen da komunitate jakina (Nafarroa eta Araba).
- Euskal Herriko ezkerreko gazte-mugimendu independentistak presentzia nabarmena du kluster propioa eraikiz.
- Ezkerreko independentismo politikoaren presentzia esanguratsua da, aktore ezberdinak protagonismo erabakigarria lortzen dutelarik (aktibistak, komunikabideak, sindikatuak, hautetsiak eta abar).
- Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio garrantzitsuenetako agintaritzak duen alderdiak, Euzko Alderdi Jeltzaleak, komunitate propioa sortzeko gaitasuna du.
- Komunikabide anitzek eta Euskal Irrati eta Telebista publikoari lotutako kazetariak ekarpen aipagarria egiten diote elkarrizketa digitalari.
- «Celebrity»-en (pertsona ospetsuak), emakumezko ekintzaile feministen zein talde feministen kontu ofizialen presentzia apala da.



## 5. taula. Komunitate nagusi bakoitzeko liderrak.

Komunitate nagusiak	Liderrak	Sarreramaila	Interpretaziorako hitz gakoak
8. komunitatea	@ahotsainfo	285	<b>NAFARROA</b> (Nafarroako aktibista: komunikabideak eta erakunde feministak)
	@irunerrikomf	66	
	@ekinklik	54	
9. komunitatea	@gksozialista	165	<b>GAZTE-MUGIMENDUA</b> (Ezkerreko gazte-erakundeak eta Iparraldeko komunikabideak)
	@uibnazionala	45	
	@euskalirratia	19	
24. komunitatea	@naiz_info	121	<b>EZKER INDEPENDENTISTA</b> Ezker abertzalearen kazetari eta aktibistak
	@erreharria1	63	
	@igormeltxor	49	
10. komunitatea	@naizen_elkartea	36	<b>EH BILDU</b> Euskal Herria Bildu alderdiko kontu ofizialak eta hautetsiak
	@mertxeaipurua	24	
	@feminismoak	22	
26. komunitatea	@eajpvn	113	<b>EAJ</b> Euzko Alderdi Jeltzaleko hautetsi eta kontu ofizialak
	@euzkogaztedi	52	
	@lhekibarretxe	24	
19. komunitatea	@aiaraldekomf	49	<b>ARABA</b> Arabako eta Euskal Herriko komunikabideak eta mugimendu feminista
	@arabakoalea	43	
	@hamaikatb	38	
15. komunitatea	@gaztea	49	<b>EITB</b> Euskal Irrati eta Telebista publikoko kontu ofizialak eta artistak
	@eitbalbisteak	21	
	@izaroandres	19	
7. komunitatea	@aneirazabal	97	<b>KAZETARIAK</b> Kazetari euskaldunak
	@xabiyeuzkitze	36	
	@enekogara	11	
6. komunitatea	@labsindikatu	49	<b>LAB</b> LAB sindikatua eta euskal presoen aldeko mugimendua
	@sare_herritarra	45	
	@labmetrobilbao	35	

Iturria: norberak egina.

## 6. Ondorioak eta eztabaida

Ikerketa hau hizkuntza zehatz batek zedarriztatu du: euskarak. Hala, 2021eko martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, euskaraz, batez ere, jardun ziren txiolarien interakzioekin sortutako elkarrizketa digitala aztertu da. Hala, efemeride horrek utzitako aztarna digitala baliatuta honako elementu hauen inguruko informazio zehatza eskuratu da: aktibismoarako erabili ziren traolen zerrenda,

erabilitako hizkuntza, profil esanguratsuenen deskripzioa, eta elkarrizketan sortu ziren komunitate ezberdinen erauzpena, besteak beste.

Ikerketa honek agerian uzten duen gakoetako bat da martxoaren 8ko euskal traol-aktibismoa digitala bi ardatz zehatzen inguruan egiten dela: ezkerreko ideologia eta abertzaletasuna. Halaber, datuak adierazten dute modu horizontal eta pluralean eraikitzen dela eta izaera internazionalista nabarmenarekin. Hala, euskal esparruko euskarazko aktibistek mezu traolaniztunak idazteko joera dute, hizkuntza batean baino gehiagotan. Jokamolde hori ohikoa da beste hizkuntza batzuetan garatzen den feminismoarekin zerikusia duten aldarrikapenetan eta nazioarteko feminismoen artean aliantza estrategiko bat sortzeko asmoarekin zerikusia izan dezake.

Bestalde, aztertutako kasua paradigmatikoa da sare sozialen bitartez eztabaida eta polemika publikoetan eragiteko eragileek izan ditzaketan estrategia ezberdinei erreparatzeko. Datuak ikusita bi portaera digitala mota ikus ditzakegu eztabaida publikoan eragiteko: elkarrizketa digitalean «zeharkako barneratzea» bilatzen duena eta «zuzeneko barneratzea» bilatzen duena.

Hala, ikerketa honetan ezkerreko subiranismoak egiten duen barneratzea zeharkakoa da: marka politiko propioa eta profil korporatiboak larregi erabili gabe sakonki eragiten du elkarrizketa digitalean sortzen diren eduki, lider eta harremanetan. Eragin hori lortzeko bozeramaila askotarikoa eta «korala» erabiltzen du (hautetsiez gain, kazetariak, komunikabideak, aktibistak, sindikatuak eta abar.), aliantzak sortzen ditu aktore ezberdinekin interakzio digitalen bitartez, eta aztertutako efemeridean agertutako traol aniztetan eta komunitate askotan presentzia bermatzen du. Horrek guztiak ikusgarritasuna eta hedapena lortzeko abiapuntu egokian kokatzen du eztabaida digitalean eragiteko estrategia mota hau oinarri hartzen duen erakunde edo norbanako oro.

Aldiz, Euzko Alderdi Jeltzaleak daukan jokaera bestelakoa da: traol propioa bat sortzen du bere hautetsi eta profil ofizialek erabili dezaten (#GukEgingoDugu). Hartara, sare sozialetan sarri gertatzen den homofilia (McPherson *et al.*, 2001; Orbegozo-Terradillos, Morales-I-Gras, *et al.*, 2020) kasu nabarmen baten aurrez aurre kokatzen gara: berdinen arteko interakzioetara mugatzen da parte-hartze digitala eta komunitate horretan partekatzen den edukiak sareko gainerako erabiltzaileengana heltzeko potentzial askoz ere murriztagoa dauka. Hala, estrategia mota horrek fenomeno zehatz batzuen aurrean «tribu» jakina errelato baten inguruan pilatzeko zein egonkortzeko balio dezake, baina ez litzateke bat etorriko Emakumeen Nazioarteko Egunari modu orokorrean errekonozitzen zaion izaerarekin. Azaldutakoagatik, «oihartzun-ganbera» (ingelesez, *echo chambers*) (Törnberg, 2018) delako fenomenoaren adibide nabarmen bat dela esan genezake. Alegia, informazioa, ideiak edo iritziak transmisio masiboaren bitartez sistema «itxi» batean aplikatzen dira, non ikuskera ezberdin edo kontrajarriak zentsuratuta, debekatuta edo gutxietsita dauden.

Aztertutako kasuari beste perspektiba batetik heltzen badiogu, aktoreen tipologiatik kasu, bada ere zer nabarmentzerik: desoreka-puntu bat nabaritzen da komunikazio politikoaren hiru aktoreek (Ferry & Wolton, 2005) duten presentziari

erreparatzen badiogu (aktore politikoak, komunikabideak eta herritar iritzi-sortzaileak). Hala, erakunde politikoen eta komunikabide zein kazetarien eskuhartzea esanguratsua den bitartean, bakanagoa da aktibistek lortzen duten oihartzuna. Ildo horretatik, deigarria da ikerketa honetan egindako rankingetan agertzen diren norbanako aktibisten profilak gizonezkoenak soilik izatea. Emakume aktibista feministen absentziari beste hutsune bat gehitzen zaio: euskal mugimendu feministako elkarte ugariaren profila eta baita erakunde publikoek bultzatutako beste kontu ofizial batzuen ere. Hala, ikerketa honek baliatu duen hipotesia ezeztatu egiten da, elkarrizketaren dinamizazioan eta lidergoan bestelako subjektu batzuk agertu direlako.

Bestalde, ikerketa honek duen indarguneetako bat da pandemiaren eraginez, bete-betean, murrizketa-testuinguru batean egin izana. Horrekin lotuta bada aztarna digitalari erreparatuta atera daitekeen ondorio aipagarri bat: aldarrikapen birtualak ez du ordezkatu aldarrikapen fisikoa; aitzitik, eskutik hartuta joaten jarraitzen dute. Protagonisten artean komunikabide asko egoteak hori aditzera ematen du: kaleko mobilizazioen berri emateak dakar efemeride honek Twitter sare sozialean oihartzun handiagoa izatea.

Ikerketa-kasu guztiek dituzte aintzat hartu beharreko mugak eta honakoa ez da salbuespena. Hala ere, zientziari egiten dion ekarpen garrantzitsuenetako bat da azterketarako *ad-hoc* diseinatutako prozesu metodologiko zehatza implementatzen duela, aurrekaririk ez duen testuinguru digital eta aktibista batean, hau da, beste edozein fenomeno, efemeride, gertaera edo eztabaida publiko aztertzeko abiapuntu baliogarria uzten duela. Hartara, artikulu honetan jasotako ondorioak eta proposatutako metodologia etorkizunean egin daitezkeen ikerketekin berretsi eta osa daitezke.

## 7. Erreferentziak

- Acosta, M. & Nevache, C. (2020): «La conversación digital en torno al hashtag #RespetoAlDolorDeMadre en Panamá», *Revista DÍgitos*, 1(6), 13-30. <https://doi.org/10.7203/rd.v1i6.171>
- Agamben, G. (2020): «Contagio», in ASPO (ed.), *Sopa de Wuhan: pensamiento contemporáneo en tiempos de pandemia*, 31-34.
- Álvarez-Gayou, J.-L.; Martín-Camacho, S.; Maldonado-Muñiz, G.; Átala-Trejo, C.; Olguín-López, A. & Pérez-Jiménez, M. (2014): «La investigación cualitativa», *Xikua*, 2(3).
- Araújo-Mendes, J. (2015): «Hacia una crítica feminista de la sociedad red: más allá de la revolución de la audiencia creativa», *Dígitos. Revista de Comunicación Digital*, 1, 37-58.
- Arbuet-Osuna, C. (2021): «Intervenciones feministas anti-punitivas sobre cuidado de sí y de lxs otrxs en pandemia», *Iberoamérica Social: Revista-Red de Estudios Sociales*, 4, 21-42.
- Aurrekoetxea-Casaus, M. (2020): «San fermines #la manada case: An exploratory analysis of social support for victims of sexual violence on Twitter», in *Computers in Human Behavior* (Bol. 108, 106.299. or.), Elsevier Ltd. <https://doi.org/10.1016/j.chb.2020.106299>

- Bastian, M.; Heimann, S. & Jacomy, M. (2009): *Gephi: an open source software for exploring and manipulating networks*, International AAAI Conference on Weblogs and Social Media.
- Bell, D. (1976): *El advenimiento de la sociedad postindustrial*, Alianza.
- Blondel, V.D.; Guillaume, J.-L.; Lambiotte, R. & Lefebvre, E. (2008): «Fast unfolding of communities in large networks», *Journal of Statistical Mechanics: Theory and Experiment*, 8(10), 10.008. <https://iopscience.iop.org/article/10.1088/1742-5468/2008/10/P10008/pdf>
- Bringel, B. & Pleyers, G. (2020): «Introducción. La pandemia y sus ecos globales», in B. Bringel & G. Pleyers (ed.), *Alerta global*, CLACSO, 9-34. <https://www.jstor.org/stable/j.ctv1gm027x.25>
- Calviño-Santamaría, N. (2020): «Las medidas de política económica en el contexto de la covid-19», *Economistas*, 170, 8-15.
- Casero-Ripollés, A. (2020): «Impact of covid-19 on the media system. Communicative and democratic consequences of news consumption during the outbreak», *Profesional de La Informacion*, 29(2). <https://doi.org/10.3145/epi.2020.mar.23>
- Castañeda-Salgado, M.-P. (2008): *Metodología de la investigación feminista*, Guatemala Centro de Interdisciplinarias en Ciencias y Humanidades (CEIHC).
- Castells, M. (2006): *La sociedad red: una visión global* (Issue 16), Alianza.
- Chenou, J. M. & Cepeda-Másmela, C. (2019): «#NiUnaMenos: Data Activism From the Global South», *Television and New Media*, 20(4), 396-411. <https://doi.org/10.1177/1527476419828995>
- Congosto, M.; Basanta-Val, P. & Sanchez-Fernandez, L. (2017): «T-Hoarder: A framework to process Twitter data streams», *Journal of Network and Computer Applications*, 83, 28-39. <https://doi.org/10.1016/j.jnca.2017.01.029>
- de-Barro, C. (2021): «Contradicciones del Gobierno sobre el 8-M que confunden a la población: del “no ha lugar” al “se pueden reducir riesgos”», *20 minutos*, otsailak 26. <https://www.20minutos.es/noticia/4600353/0/contradictorio-mensaje-enviado-ciudadanos-manifestaciones-8-marzo/>
- Della-Porta, D. (2020): «Movimientos sociales en tiempos de Covid-19: otro mundo es necesario». in *Alerta global*, 175-179.
- Dixon, K. (2014): «Feminist Online Identity: Analyzing the Presence of Hashtag Feminism», *Journal of Arts and Humanities*, 3(7), 34-40. <https://doi.org/10.18533/journal.v3i7.509>
- Echeverría, J. (1999): *Los señores del aire: Telepolis y el tercer entorno*, Destino.
- Fernandez-de-Landa, J. (2018): «Gazteak eta euskara sare sozialetan. Zer, nori, nork: euskarazko txio formal eta informalak sailkatuz eta konparatuz», in *Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua Masterreko titulua lortzeko bukaerako proiektua*. [https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/29605/MAL-Joseba\\_Fernandez\\_de\\_Landa.pdf?sequence=1&isAllowed=y](https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/29605/MAL-Joseba_Fernandez_de_Landa.pdf?sequence=1&isAllowed=y)
- Ferry, J.-M. & Wolton, D. (2005): *El nuevo espacio público*, Gedisa.
- García-Herrero, J.; Berlanga-de-Jesús, A.; Molina-López, J.-M.; Patricio-Guisado, M.-Á.; Bustamante, Álvaro-L. & Padilla-Arias, W.-R. (2018): *Ciencia de datos: técnicas analíticas y aprendizaje estadístico*, Altaria.
- García, I. & Reynoso, A. (2021): *Poner el cuerpo (digital) este #8M*, Internet Feminista, martxoak 8. <https://luchadoras.mx/internetfeminista/2021/03/05/poner-el-cuerpo-digital-este-8m/>
- García, M.-P. (2018): «Una ola feminista recorre el mundo», in U. Bosia (ed.), *La Cuarta Ola feminista*, 15-24).
- Gravante, T. & Poma, A. (2020): «Romper con el narcisismo: emociones y activismo de base durante la pandemia», in B. Bringel & G. Pleyers (ed.), *Alerta global*, CLACSO, 209-218. <https://www.jstor.org/stable/j.ctv1gm027x.25>

- Gutiérrez-Puebla, J. (2018): «Big Data y nuevas geografías: la huella digital de las actividades humanas», *Documents d'Anàlisi Geogràfica*, 64(2), 195-217. <https://doi.org/10.5565/rev/dag.526>
- Gutiérrez-Rubí, A. (2021): «Nueva demoscopia para comprender lo complejo», *CincoDías*, maiatzak 5. [https://cincodias.elpais.com/cincodias/2021/05/04/opinion/1620131187\\_017335.html](https://cincodias.elpais.com/cincodias/2021/05/04/opinion/1620131187_017335.html)
- Han, B.-C. (2020): «La emergencia viral y el mundo de mañana», in *Sopa de Wuhan: pensamiento contemporáneo en tiempos de pandemia*, ASPO, 97-112.
- Haraway, D.J. (1995): *Ciencia, cyborgs y mujeres. La reinención de la naturaleza. Prólogo a la edición española*, Universitat de València. <https://kolectivoporoto.cl/wp-content/uploads/2015/11/Haraway-Donna-ciencia-cyborgs-y-mujeres.pdf>
- Idoiaga Mondragon, N.; Sainz de la Maza San Jose, M. & Belasko Txertudi, M. (2019): «“La Manada” auziko sententziaren jarraipena Twitterren: bortxaketaren kulturari buruzko gizarte-irudikapenak iraultzen», *Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 110, 85-102. <https://doi.org/10.26876/uztaro.110.2019.5>
- Jacomy, M.; Venturini, T.; Heymann, S. & Bastian, M. (2014): «ForceAtlas2, a continuous graph layout algorithm for handy network visualization designed for the Gephi software», *PLoS ONE*, 9(6), e98679. <https://doi.org/10.1371/journal.pone.0098679>
- Jódar-Marín, J.-Á. (2010): «La era digital: nuevos medios, nuevos usuarios y nuevos profesionales», *Razón y Palabra*, 71, 1-11. [http://www.razonypalabra.org.mx/N/N71/VARIA/29.JODAR\\_REVISADO.pdf](http://www.razonypalabra.org.mx/N/N71/VARIA/29.JODAR_REVISADO.pdf)
- Juste, M. (2021): «La pandemia dispara el uso de las redes sociales, un 27% más que hace un año», *Expansión (Economía Digital)*, otsailak 10. <https://www.expansion.com/economia-digital/innovacion/2021/02/10/6022c89de5fdea59448b459b.html>
- Larrondo-Ureta, A.; Orbeagoz-Terradillos, J. & Morales-I-Gras, J. (2021): «Digital prospects of the contemporary feminist movement for dialogue and international mobilization: A case study of the 25 november twitter conversation», *Social Sciences*, 10(3), 1-13. <https://doi.org/10.3390/socsci10030084>
- Larrondo, A.; Morales i Gras, J. & Orbeagoz, J. (2019): «Feminist hashtag activism in Spain: Measuring the degree of politicisation of online discourse on #yosítecreo, #hermanayositecreo, #cuéntalo y #noestásola», *Communication and Society*, 32(4 Special Issue), 207-221. <https://doi.org/10.15581/003.32.4.207-221>
- Laudano, C. (2018): «#abortolegal:el grito que tiñó las redes», *Bordes. Revista de Política, Derecho y Sociedad*, 1-9.
- Levy, P. (2001): *Cyberculture*, University of Minnesota Press.
- Llavaneras-Blanco, M. & Graciela-Cuervo, M. (2021): *La pandemia como portal: transformaciones de políticas que disputan la nueva normalidad*. [https://dawnnet.org/wp-content/uploads/2021/04/La-pandemia-como-portal\\_transformaciones-de-políticas-que-disputan-la-nueva-normalidad\\_DAWN-Discussion-Paper-32\\_Spanish.pdf](https://dawnnet.org/wp-content/uploads/2021/04/La-pandemia-como-portal_transformaciones-de-políticas-que-disputan-la-nueva-normalidad_DAWN-Discussion-Paper-32_Spanish.pdf)
- Martín, J. (2021): «La pandemia no acalla la voz del feminismo en el 8M: movilizaciones con distancias, aplausos y reivindicaciones telemáticas», in *Rtve*. <https://www.rtve.es/noticias/20210308/dia-mujer-8m-pandemia-2021/2081190.shtml>
- McLuhan, M. (1994): *Comprender los medios de comunicación Las extensiones del ser humano*, Paidós. [https://semioticaderedes-carlon.com/wp-content/uploads/2018/04/McLuhan\\_Marshall\\_Comprender\\_los\\_medios\\_de\\_comunicacion.pdf](https://semioticaderedes-carlon.com/wp-content/uploads/2018/04/McLuhan_Marshall_Comprender_los_medios_de_comunicacion.pdf)
- McPherson, M.; Smith-Lovin, L. & Cook, J.M. (2001): «Birds of a feather: Homophily in social networks», *Annual Review of Sociology*, 27, 415-444. <https://doi.org/10.1146/annurev.soc.27.1.415>

- Mercier, P.-A.; Plassard, F. & Scardigli, V. (1990): *La sociedad digital*, Ariel Editorial.
- Microsoft (2021): *About Power Query in Excel - Excel*. <https://support.microsoft.com/en-us/office/about-power-query-in-excel-7104fbee-9e62-4cb9-a02e-5bfb1a6c536a>
- Morales i Gras, J. (2017): *Soberanías enredadas: una perspectiva reticular, constructural y agéntica hacia los relatos soberanistas vasco y catalán contemporáneos en Twitter*, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Mrvar, A. & Batagelj, V. (2021): *Programs for Analysis and Visualization of Very Large Networks. Reference Manual*. <http://mrvar.fdv.uni-lj.si/pajek/pajekman.pdf>
- Muñoz-Saavedra, J. (2019): «Una nueva ola feminista... más allá de# MeToo. Irrupción, legado y desafíos», in P. Rivera-Vargas, J. Muñoz-Saavedra, R. Morales Olivares & S. Butendieck-Hijerra (ed.), *Políticas Públicas para la Equidad vol II. [Preprint]*.
- Myles, D. (2019): ««Anne goes rogue for abortion rights!»: Hashtag feminism and the polyphonic nature of activist discourse», *New Media and Society*, 21(2), 507-527. <https://doi.org/10.1177/1461444818800242>
- Navarro, C. & Coromina, Ó. (2020): «Discussion and mediation of social outrage on Twitter: The reaction to the judicial sentence of La Manada», *Communication and Society*, 33(1), 93-106. <https://doi.org/10.15581/003.33.1.93-106>
- Negroponte, N. (1995): *El Mundo Digital*. <https://users.dcc.uchile.cl/~cgutierr/cursos/INV/serDigital.pdf>
- Ofori-Parku, S.S. & Moscato, D. (2018): «Hashtag Activism as a Form of Political Action: A Qualitative Analysis of the #BringBackOurGirls Campaign in Nigerian, UK, and U.S. Press», *International Journal of Communication (Online)*, 2.480-2.503. <https://go.gale.com/ps/i.do?p=AONE&sw=w&iissn=19328036&v=2.1&it=r&id=GALE%7CA560926675&sid=googleScholar&linkaccess=fulltext>
- OpenRefine (2021): *A free, open source, powerful tool for working with messy data*. <https://openrefine.org/>
- Orbegozo-Terradillos, J.; Larrondo-Ureta, A. & Morales-i-Gras, J. (2020): «Influencia del género en los debates electorales en España: análisis de la audiencia social en #ElDebateDecisivo y #L6Neldebate», *Profesional de La Informacion*, 29(2). <https://doi.org/https://doi.org/10.3145/epi.2020.mar.09>
- Orbegozo-Terradillos, J.; Morales-I-Gras, J. & Larrondo-Ureta, A. (2020): «Desinformación en redes sociales: ¿compartimentos estancos o espacios dialécticos? El caso Luther King, Quim Torra y El Confidencial», *Revista Mediterranea de Comunicacion*, 11(2), 55-69. <https://doi.org/10.14198/MEDCOM2020.11.2.2>
- Partenio, F. & Atienza, M. (2021): *Lecturas feministas de la pandemia: construcciones, alternativas y desafíos rumbo al 8M - DAWN*, , martxoak 8. <https://dawnnet.org/2021/03/lecturas-feministas-de-la-pandemia-construcciones-alternativas-y-desafios-rumbo-al-8m/>
- Piñeiro-Otero, T. & Martínez-Rolán, X. (2016): «Los memes en el activismo feminista en la red. #vlajosola como ejemplo de movilización transnacional», *Cuadernos.Info*, 39, 17-37. <https://doi.org/10.7764/cdi.39.1040>
- Piscitelli, A. (2002): *Cibercultura 2.0. En la era de las máquinas inteligentes*, Ediciones Paidós Iberica.
- Portillo-Sánchez, M. & Beltrán-Fuentes, D.-E. (2021): «Efectos de la pandemia por la Covid-19 en las movilizaciones feministas de la Ciudad de México», *Revista Mexicana de Estudios de Los Movimientos Sociales*, 5(1), 6-36.
- Ramonedá, J. (2018): «El nuevo sujeto emancipador», *El País*, maiatzak 3. [https://elpais.com/elpais/2018/05/02/opinion/1525271224\\_542845.html](https://elpais.com/elpais/2018/05/02/opinion/1525271224_542845.html)



- Reverte, S. & Medina-Vicent, M. (2020): *El feminismo en 35 hashtags*, Los libro de la catarata.
- Robles, J.M.; Atienza, J.; Gómez, D. & Guevara, J.A. (2019): «The polarization of “La Manada”: The public debate in Spain and the risks of digital political communication», *Tempo Social*, 31(3), 193-216. <https://doi.org/10.11606/0103-2070.ts.2019.159680>
- Sousa-Santos, B. (2002): «Hacia una concepción multicultural de los derechos humanos», *El Otro Derecho*, 28, 59-84.
- Tabares, L. & Hernández, J. (2014): *Big Data Analytics: Oportunidades, Retos y Tendencias*, Universidad de San Buenaventura.
- Tapscott, D. (1997): *The digital economy: Promise and peril in the age of networked intelligence*, McGraw-Hill Education.
- Tarullo, R. & García, M. (2020): «Hashtivism feminista en Instagram: #NiñasNoMadres de @actrices argentinas», *Digitos. Revista de Comunicación Digital*, 6, 31-54. <https://doi.org/10.7203/rd.v1i6.172>
- Téllez-Carvajal, E. (2017): «Reflexiones en torno a la “ciudadanía digital”», *Revista Doxa Digital*, 7(13), 47-65. <https://doi.org/10.52191/rdojs.2017.34>
- Terceiro-Lomba, J.-B. (1996): *Sociedad digital: del homo sapiens al homo digitalis*, Alianza.
- Toffler, A. (1995): *La tercera ola*, Plaza & Janés.
- Törnberg, P. (2018): «Echo chambers and viral misinformation: Modeling fake news as complex contagion», *PLoS ONE*, 13(9), e0203958. <https://doi.org/10.1371/journal.pone.0203958>
- Ullate, S. (2021): «8M: iniciativas digitales por el Día Internacional de la Mujer», *Harpers Bazaar*, marzo 8. <https://www.harpersbazaar.com/es/cultura/ocio/g35699643/8-m-iniciativas-digitales-manifestaciones/>
- umap.eus. (2021): *Umap.eus - Twitterreko euskarazko jarduna*. <https://umap.eus/>
- Varela, N. (2019): *Feminismo 4.0. La cuarta ola*, B (Ediciones B).
- Yáñez-González, G. (2020): «Fragilidad y tiranía (humana) en tiempos de pandemia», in *Sopa de Wuhan: pensamiento contemporáneo en tiempos de pandemia*, ASPO, 139-144.
- Zajak, S. (2020): «Movimientos sociales y solidaridades (transnacionales) en tiempos de coronavirus», in B. Bringel & G. Pleyers (ed.), *Alerta global*, CLACSO, 205-208. <https://www.jstor.org/stable/j.ctv1gm027x.25>
- Zeifer, B. (2020): «El hashtag contestatario: cuando los hashtags tienen efectos políticos», *Digitos. Revista de Comunicación Digital*, 6, 101-118. <https://doi.org/10.7203/rd.v1i6.178>
- Zizek, S. (2020): «Coronavirus es un golpe al capitalismo al estilo de “Kill Bill” y podría conducir a la reinención del comunismo», in *Sopa de Wuhan: pensamiento contemporáneo en tiempos de pandemia*, 12-28.





